

Oinarri-Arauak

“Bilbo Hiria”

PIANO ETA BIOLIN

3. Musika Lehiaketa

2026ko maiatzaren 15tik 18ra



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea



European Research Council  
Established by the European Commission

H I N V E S



### 3. “Bilbo Hiria”

## Musika Lehiaketa

### Oinarri-Arauak

#### 1. Parte-hartzea

Edozein nazionalitateko piano-jotzaile eta biolin-jotzaileek hartu ahal izango dute parte lehiaketan, bizileku-murrizketarik gabe. Lehiaketako hizkuntza ofizialak Gaztelania, Euskara eta Ingelesa dira.

#### 2. Modalitateak eta kategoriak

Lehiaketak bi modalitate ditu:

1. PIANOA
2. BIOLINA

Modalitate bakoitza bederatzi kategoriatan banatuta dago, adinaren arabera definituak. Hala ere, parte-hartzaileek adinaren arabera egokitzen zaiena baino goragoko kategorietan parte hartu ahal izango dute (adibidez: 2008ko apirilaren 20an jaiotakoak F, G, H edo I kategorietan parte hartu ahal izango dute).

- **A KATEGORIA:** 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera (barne) jaiotakoak
- **B KATEGORIA:** 2016eko urtarrilaren 1etik aurrera (barne) jaiotakoak
- **C KATEGORIA:** 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera (barne) jaiotakoak
- **D KATEGORIA:** 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera (barne) jaiotakoak
- **E KATEGORIA:** 2010ko urtarrilaren 1etik aurrera (barne) jaiotakoak
- **F KATEGORIA:** 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera (barne) jaiotakoak
- **G KATEGORIA:** 2006eko urtarrilaren 1etik aurrera (barne) jaiotakoak
- **H KATEGORIA:** 2004ko urtarrilaren 1etik aurrera (barne) jaiotakoak
- **I KATEGORIA:** 1994ko urtarrilaren 1etik aurrera (barne) jaiotakoak

#### 3. Egutegia

Lehiaketa 2026ko maiatzaren 15tik 18ra bitartean ospatuko da, "Juan Crisóstomo de Arriaga" Musika Kontserbatorioan, Ibarrekolanda Plaza 1, 48015, Bilbo helbidean.

#### 4. Izen-ematea

Tasak ordaintzea derrigorrezkoa da lehiaketan izena emateko. Izena ematearen gastuak honakoak dira:

- A, B eta C Kategoriak 40 €.
- D, E eta F Kategorial: 50 €.
- G, H eta I Kategoriak 60 €.

2. modalitateko (biolina) kategorietako parte-hartzaileek haien pianojole laguntzailea ekarri beharko dute. Pianojolea ekartzeko aukerarik ez balute antolakuntzak dohaineko pianojolea jarriko du A, B, C, D, E eta F kategorietan. G, H eta I kategorietan antolakuntzak eskainitako pianojolea eskatzeko aukera dago, baina kasu hauetan, honako tarifa ordaindu beharko da:

- G, H eta I Biolineko kategoriak, : 100 € (pianojole laguntzailea behar izanez gero)

Izena emateko tasak banku-transferentzia bidez ordaindu beharko dira, hurrengo datuak jarritz:

IBAN: ES39 2095 0292 9132 3900 0567

SWIFT (BIC): BASKES2BXXX

Entitatearen Izena: Kutxabank

Kontuaren titularra: Universidad del País Vasco - Euskal Herriko Unibertsitatea

Kontzeptua: "IZEN-ABIZENAK" concurso piano VILLA DE BILBAO

Izen-ematea oinarri hauen argitaratze-datatik honako epeetara egongo da zabalik:

- 1. modalitatea (pianoa), kategoria guztiak: 2026ko apirilaren 20a
- 2. modalitatea (biolina), kategoria guztiak: 2026ko apirilaren 20a

Izen-ematea zuzenki beteta, epean eta tasak ordainduta dituzten parte-hartzaileak soilik izango dira onartuak. Inola ere ez dira itzuliko izena ematearen tasak behin ordainduta daudenean.

Izen-emateak telematikoki egingo dira, [Lehiaketaren webgunean](#).

Inprimakia bete "izen-emateak" loturan dagoen atalean, honako hauek adieraziz:

1. Izena eta abizenak, jaiotze-data, helbide osoa, helbide elektronikoa eta telefono mugikorra.
2. Parte-hartzen den Modalitatea eta Kategoria.
3. Lehiaketan joko diren obrak edota mugimenduak; egileen izenak eta obra edo mugimendu bakoitzaren iraupena.

Era berean, inprimakiarekin batera hurrengo dokumentuak igo beharko dira:

1. NAN edo pasaportearen kopia.
2. Izena ematearen tasaren ordainagiria.
3. Ikasketa ibilbide akademikoa, gehienez orri batekoa, PDF formatuan, azken bi urteetan izandako irakasleak aipatuz
4. Gurasoen edo legezko tutoreen baimena, 18 urte baino gutxiago dituztenen kasuetan.
5. Parte-hartzaileen argazki eta bideoen argitaratze baimena, Lehiaketarekin lotutako plataformetan eta sare sozialetan argitaratu ahal izateko.

## 5. Errepertorioa

Errepertorioa aukerakoa izango da. A, B, C, D, E, F kategoriatan obra-mugimenduak interpretatu ahal izango dira. G, H, I kategoriatan obra osoak aurkeztu beharko dira, errepertorioan modu independentean finkatutako mugimenduak edo zikloetako piezak izan ezik, luzera edo beste

ezaugarriak direla eta, kontzertu programetan ohikoak diren kasuetan. Kasu horietan, obra horien sarrera Lehiaketaren Zuzendaritza Artistikoarekin kontsultatu beharko da onartua izateko, izena emateko epea amaitu baino lehen.

Piano eta biolinaren obra originalak bakarrik onartuko dira, salbuespen gisa tradizioak onartutako kasuak izan ezik (instrumentuaren kontzertuko errepertorioan finkatutako lanak). Kasu horietan, obra horien sarrera Lehiaketaren Zuzendaritza Artistikoarekin kontsultatu beharko da onartua izateko, izena emateko epea amaitu baino lehen.

Ezarritako iraupenetik gora doan errepertorioa aurkeztekotan, interpretatzeko ordena izen-ematean zehaztutakoa izango da. Ezin izango da errepertorioa aldatu Lehiaketaren Zuzendaritza Artistikoak onartu ondoren.

Norberaren saioa hastera doanean parte-hartzaile bakoitzak haren errepertorioaren 5 fotokopia aurkeztu beharko dizkio Epaimahaiari.

Errepertorioa buruz interpretatzea hautazkoa da.

## **6. Proben gehiengo iraupena**

- A KATEGORIA: 3 minutu.
- B KATEGORIA: 4 minutu.
- C KATEGORIA: 5 minutu.
- D KATEGORIA: 8 minutu.
- E KATEGORIA: 10minutu.
- F KATEGORIA: 12 minutu.
- G KATEGORIA: 25 minutu.
- H KATEGORIA: 30 minutu.
- I KATEGORIA: 40 minutu.

Iraupen hauek gainditzekotan Epaimahaiak parte-hartzailearen proba eteteko eskubidea izango du.

## **7. Datak eta ordutegiak**

Proben datak eta ordutegiak izena emateko epea itxi ondoren jakinaraziko dira lehiaketaren webgunean.

Lehiaketa "Juan Crisóstomo de Arriaga" Kontserbatorioan (Ibarrekolanda Plaza 1, 48015 Bilbo) egingo da. Parte-hartzaileak zehaztutako lekuan eta orduan egon beharko dira, eta nortasuna egiaztatzen duen NAN edo beste dokumenturen bat aurkeztu beharko dute.

## **8. Jardueraren ordena**

Parte-hartzaile bakoitzaren jardueraren ordena kategoria bakoitzaren proba hasi aurretik egindako letra zozketa bidez zehaztuko da.

## 9. Amaiera-ekitaldia eta sari banaketa

Amaiera-ekitaldia 2026ko maiatzaren 30an ospatuko da. Ordutegia eta lekua aurrerago jakinaraziko dira. Ekitaldi horretan, kategoria guztietako irabazle absolutuei sariak banatuko zaizkie. Ekitaldia bi modalitateetako G, H eta I kategorietako parte-hartzaileek egingo duten itxiera kontzertuarekin amaituko da.

## 10. Epaimahaia

Epaimahaia Lehiaketaren Zuzendaritza Artistikoak izendatutako piano eta biolinjole ospetsuek osatuko dute. Epaimahaiaren presidentek saio bat eteteko eskubidea izango du, baldin eta zehaztutako iraupena gainditzen bada edo ebaluatzeko edukia nahikoa dela uste bada. Etendura horrek ez du interpretazioaren balorazio negatibo edo positiborik ekarriko. Epaimahaia sariak hutsik utzi ahal izango ditu.

Epaimahaiaren ebazpena ezin izango da apelatu.

## 11. Sariak

Epaimahaia puntuazio gisa 100 edo gutxiago den zenbaki bat emango dio parte-hartzaile bakoitzari. Kategori guztietan, honako sari hauek emango dira:

- 1. SARI-ABSOLUTOA: puntuazioa 98 edo goragokoa.
- 1. SARIA: puntuazioa 95 eta 97 artekoa (biak barne).
- 2. SARIA: puntuazioa 90 eta 94 artekoa (biak barne).
- 3. SARIA: puntuazioa 85 eta 89 artekoa (biak barne).
- 4. SARIA: puntuazioa 80 eta 84 artekoa (biak barne).

Kategoria bakoitzeko 1. sari absolutuen irabazleek plaka eta diploma bat jasoko dute itxiera ekitaldian.

Gainerako sarituek domina eta diploma bat jasoko dute kategoriaren saioa amaitu eta emaitzak jakinarazi ondoren.

Parte-hartzaile guztiek parte-hartze-diploma jasoko dute.

Horrez gain, modalitate bakoitzeko G, H, I kategorietan honako sari hauek emango dira:

- G Kategoria: Bi Kontzertu partekatuko du H Kategoriako irabazlearekin: bat Bilboko Kontserbatorioan eta bestea Madrilgo Sala Hinvesen + 500 €-ko diru-laguntza, kontzertu hauek eragindako bidai-gastuak estaltzeko.
- H Kategoria: Bi Kontzertu partekatuko du G Kategoriako irabazlearekin: bat Bilboko Kontserbatorioan eta bestea Madrilgo Sala Hinvesen + 750 €-ko diru-laguntza, kontzertu hauek eragindako bidai-gastuak estaltzeko.
- I Kategoria: Kontzertu bat Sociedad Bilbainan eta beste bat, pianoa eta biolina tarteko, Madrilgo Sala Hinves-en + 1.000 €-ko diru-laguntza, kontzertu horiek sortzen dituen mugikortasun-gastuak ordaintzeko.

Sariaren kopurua indarrean dagoen legediaren arabera atxikitze fiskala izango du.

## 12. Oinarrien onarpena

Lehiaketan izena emateak oinarri hauek osorik onartzea suposatzen du. Antolakuntzak eskubidea gordetzen du oinarriak eta ordutegiak aldatzeko lehiaketaren garapen egokia bermatzeko. Aldaketak aldeztu aurretik jakinaraziko zaizkie parte-hartzaileei.

## 13. Beste baldintza eta oharrak

- Antolakuntzak eskubidea izango du Lehiaketarekin (probak eta itxiera ekitaldia) lotutako ekitaldiak grabatzeko edozein ikus-entzunezko euskarria erabiliz. Grabazio horiek erabiltzeko eskubidea izango du beharrezkotzat jotzen duen promozio-erabilerarako.
- Saioetan antolakuntzaren argazkilari eta bideo kameralari ofizialek irudiak aterako dituzte, beti ere, ahal den neurrian, beraien lanak inongo eraginik izan ez dezan saiatuko direlarik.

## 14. Zuzendaritza Artistikoa

Lehiaketaren Zuzendari Artistikoa honako hau izango da:

- Luca Fanelli (Ikerbasque Research Professor, ikerlaria UPV/EHU & BCAM, Estatuko Ikerketa Agentziako (AEI) Matematikako Arloaren kudeatzailea; Pianojolea).  
Webgunea: <https://www.ikerbasque.net/es/luca-fanelli>

Lehiaketaren Zuzendaritza Artistikoaren zuzendari ondokoak honako hauek izango dira:

- Ales Larrazabal (Bilboko Kontserbatorioa; pianojolea)
- Rubén Darío Reina (RTVE Orkestra; biolinjolea)
- Maite Villate (Bilboko Kontserbatorioa; pianojolea)

## 15. Kontaktua

Ekitaldiaren antolakuntzaren arduraduna: *Magdalena Strugaru* (Matematika Saila, Zientzia eta Teknologia Fakultatea, UPV/EHU)

Antolakuntzaren posta elektronikoa: [contactovilladebilbao@gmail.com](mailto:contactovilladebilbao@gmail.com)